
2018
UZTAILAK
2-7
JULIO
Kaleko Antzerki & Arteen Jaialdia
BILBOKO
KALEALDIA
19
Festival de Teatro & Artes de Calle
Bilbao

BABESLEAK:

Eusko Jaurlaritza – Gobierno Vasco

Bizkaia foru aldundia / diputación foral

Interreg POCTEFA
De mar a mar
Eskualde Garapeneko Europako Funtsarekin
(FEDER) finantzatutako proiektua

LAGUNTZAILEAK:

Institut Français Bilbao

metro bilbao

BDX Bilbao Digital Lights

HEMENGO BAZKIDEA DA:

artekale

Karrikan

patea

Kaleko Antzerki & Arteen Jaialdia
BILBOKO KALEALDIA 19
Festival de Teatro & Artes de Calle

2018

UZTAILAK **2-7** JULIO

# UZTAILA

## ASTELEHENA 2

| | |
|---|---|
| 12:00 | EUSKAL MUSEOA<br>**MOVEO CIA. (Katalunia) Conseqüències (25')** |
| 17:00 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**MIGUEL LLANES (Euskal Herria: EAE) (4 ordu)** |
| 17:00 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**IMPERIAL KIRIKISTAN (Frantzia) La Parade Impériale du Kirikistan (45')** |
| 17:30 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**CRÉATURE CIE. (Frantzia) Les Irréels (4 ordu)** |
| 17:45 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**MOVEO CIA. (Katalunia) Conseqüències (25')** |
| 18:00 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**KATAKRAK (Katalunia) Els Recicloperats (3 ordu)** |
| 18:15 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**AMER I ÀFRICA (Katalunia)  Envà (45')** |
| 19:30 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**IMPERIAL KIRIKISTAN (Frantzia) La Parade Impériale du Kirikistan (45')** |
| 20:30 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**MOVEO CIA. (Katalunia) Conseqüències (25')** |
| 21:15 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**TÊTES DE MULES (Euskal Herria: Iparralde) L´Entresort (50')** |
| 22:30 | ARRIAGA PLAZA<br>**SASEO CIE. (Frantzia) Cabaret de poche (60')** |

* Sarrera 3 € TÊTES DE MULES eta LOS GALINDOSen ikuskizunentzako eta 5 € bi ikuskizunentzako. Jaialdiko Informazio Bulegoan eskuratu daitezke uztailaren 2tik 7ra (11:30-14:00 / 16:30-20:30) edo Casilda Iturrizar Parkean (17:00-21:00).

Batutako dirua LA CUADRI DEL HOSPI elkarteari dohaintzan emango zaio.

## MARTITZENA 3

| | |
|---|---|
| 17:00 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**MIGUEL LLANES (Euskal Herria: EAE) (4 ordu)** |
| 17:00 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**IMPERIAL KIRIKISTAN (Frantzia) La Parade Impériale du Kirikistan (45')** |
| 17:30 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**CRÉATURE CIE. (Frantzia) Les Irréels (4 ordu)** |
| 18:00 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**KATAKRAK (Katalunia) Els Recicloperats (3 ordu) (3 ordu)** |
| 18:00 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**LOS GALINDOS (Katalunia) UduL (60')** |
| 18:15 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**AMER I ÀFRICA (Katalunia)  Envà (45')** |
| 19:00 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**MYSTÉRIEUSES COIFFURES (Euskal Herria: Iparralde) Xori-gizonaren elezaharra (45')** |
| 19:45 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**IMPERIAL KIRIKISTAN (Frantzia) La Parade Impériale du Kirikistan (45')** |
| 20:30 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**LOS GALINDOS (Katalunia) UduL (60')** |
| 21:15 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**TÊTES DE MULES (Euskal Herria: Iparralde) L´Entresort (50')** |
| 22:30 | ARRIAGA PLAZA<br>**ROSIE VOLT (Frantzia) Yadéwatts (60')** |

# UZTAILA

## EGUAZTENA 4

| | |
|---|---|
| 17:00 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**MIGUEL LLANES (Euskal Herria: EAE) (4 ordu)** |
| 17:00 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**IMPERIAL KIRIKISTAN (Frantzia) La Parade Impériale du Kirikistan (45′)** |
| 17:30 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**CRÉATURE CIE. (Frantzia) Les Irréels (4 ordu)** |
| 17:45 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**CIRC PÀNIC (Katalunia) MiraT (45′)** |
| 18:00 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**KATAKRAK (Katalunia) Els Recicloperats (3 ordu)** |
| 18:00 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**LOS GALINDOS (Katalunia) UduL (60′)*** |
| 19:00 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**MYSTÉRIEUSES COIFFURES (Euskal Herria: Iparralde) Xori-gizonaren elezaharra (45′)** |
| 19:45 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**IMPERIAL KIRIKISTAN (Frantzia) La Parade Impériale du Kirikistan (45′)** |
| 20:30 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**CIRC PÀNIC (Katalunia) MiraT (45′)** |
| 20:30 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**LOS GALINDOS (Katalunia) UduL (60′)*** |
| 21:15 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**TÊTES DE MULES (Euskal Herria: Iparralde) L´Entresort (50′)*** |
| 22:30 | ARRIAGA PLAZA<br>**MADUIXA CIA. (Valentziako Erkidegoa) Mulïer (40′)** |

## EGUENA 5

| | |
|---|---|
| 18:00 | AREATZA<br>**GANSO & CÍA. (Euskal Herria: EAE) Babo Royal (50′)** |
| 19:00 | ARRIAGA ANTZOKIAREN ALBOAN<br>**AMAIA ELIZARAN (Euskal Herria: EAE) Block (18′)** |
| 19:30 | PLAZA BARRIA<br>**THE PRIMITIVES (Belgika) Three of a kind (35´)** |
| 20:15 | AREATZAKO KAIA<br>**ALLER-RETOUR CIE. (Frantzia) Journal de nos corps (50′)** |
| 21:15 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**TÊTES DE MULES (Euskal Herria: Iparralde) L´Entresort (50′)** |
| 21:15 | AREATZA<br>**GANSO & CÍA. (Euskal Herria: EAE) Babo Royal (50′)** |
| 22:15 | ARRIAGA ANTZOKIAREN ALBOAN<br>**AMAIA ELIZARAN (Euskal Herria: EAE) Block (18′)** |
| 22:45 | PLAZA BARRIA<br>**THE PRIMITIVES (Belgika) Three of a kind (35´)** |
| 23:30 | ARRIAGA PLAZA<br>**ZIRKUS MORSA (Frantzia) La fin demain (40′)** |

* Sarrera 3 € TÊTES DE MULES eta LOS GALINDOSen ikuskizunentzako eta 5 € bi ikuskizunentzako. Jaialdiko Informazio Bulegoan eskuratu daitezke uztailaren 2tik 7ra (11:30-14:00 / 16:30-20:30) edo Casilda Iturrizar Parkean (17:00-21:00).

Batutako dirua LA CUADRI DEL HOSPI elkarteari dohaintzan emango zaio.

# UZTAILA

## BARIKUA 6

| | |
|---|---|
| 18:00 | EUSKAL MUSEOA<br>**GINGER BRASS EXPERIMENT (Frantzia) Le Ginger Brass Experiment (45')** |
| 18:45 | ARRIAGA ANTZOKIAREN ALBOAN<br>**BARADA STREET (Britainia Handia) Barada Street (45')** |
| 19:00 | EPALZA KALEA (Frantziako Institutuaren ondoan)<br>**LE CHAPITÔ DE NOUVELLE-CALÉDONIE (Frantzia) Caillasse (45')** |
| 19:30 | AREATZA<br>**ZIRKUS MORSA (Frantzia) La fin demain (40')** |
| 20:15 | PLAZA BARRIA<br>**ALLER-RETOUR CIE. (Frantzia) Journal de nos corps (50')** |
| 21:15 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**TÊTES DE MULES (Euskal Herria: Iparralde) L´Entresort (50')** |
| 21:15 | EUSKAL MUSEOA<br>**GINGER BRASS EXPERIMENT (Frantzia) Le Ginger Brass Experiment (45')** |
| 22:00 | ARRIAGA ANTZOKIAREN ALBOAN<br>**BARADA STREET (Britainia Handia) Barada Street (45')** |
| 22:45 | AREATZA<br>**ZIRKUS MORSA (Frantzia) La fin demain (40')** |
| 23:30 | AREATZAKO KAIA<br>**HIKA TEATROA ETA OINKARI DANTZA TALDEA (Euskal Herria: EAE) Sagartu (50')** |

**Gonbidapena behar duen ikuskizuna. Areatzan dagoen Jaialdiko Informazio Bulegoan eskuratu daitezke (gehienez 2 pertsona bakoitzeko) uztailaren 2tik 6ra bitartean (11:30-14:00 / 16:30-20:30)

## ZAPATUA 7

| | |
|---|---|
| 18:00 | ARRIAGA ANTZOKIAREN ALBOAN<br>**ERTZA (Euskal Herria: EAE) Meeting point (15')** |
| 18:15 | PLAZA BARRIA<br>**ECCENTRICI DADARÓ COMPAGNIA TEATRALE (Italia) Operativi! (50')** |
| 19:15 | AREATZA<br>**LE CHAPITÔ DE NOUVELLE-CALÉDONIE (Frantzia) Caillasse (45')** |
| 20:15 | ARRIAGA ANTZOKIAREN ALBOAN<br>**ERTZA (Euskal Herria: EAE) Meeting point (15')** |
| 20:30 | PLAZA BARRIA<br>**ECCENTRICI DADARÓ COMPAGNIA TEATRALE (Italia) Operativi! (50')** |
| 21:15 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA<br>**TÊTES DE MULES (Euskal Herria: Iparralde) L´Entresort (50')** |
| 21:30 | AREATZA<br>**LE CHAPITÔ DE NOUVELLE-CALÉDONIE (Frantzia) Caillasse (45')** |
| 22:30 | ARRIAGA PLAZA<br>**PUDDING THÉÂTRE (Frantzia) Géopolis (77')** |
| 24:00 | AREATZAKO KAIA<br>**ZO-ZONGÓ!! (Euskal Herria: EAE) Psycho-Clown (75')** |





## **ALLER-RETOUR CIE.** (Frantzia)

**"Journal de nos corps" – Zirkua (50 min).** Adin guztietako ikusleentzat.

Ikuskizun honetan gaur egungo gizartean gure gorputzarekin dugun harremana ezbaian jartzen du. Pertsona guztiek antzeko izan nahi dute, baina zein polita den bestelakoa izatea! Eta gure gorputzari begiratzen ez diogunean, zer da guretzat? Ametsetan bezala eta lasaitasunez, zirkuko bi emakumezko aktorek haien morfologiak alderatzen dituzte, haien anatomiak arakatuz, eta haien animaltasunarekin harrituta geratzen dira. Isileko mezu baten modura, aktore biek haien onena ematen diote ikuslegoari, unibertso poetiko eta absurdo batean.

***"DE MAR A MAR – ZIRKUKO PIRINIOAK" mugaz haraindiko proiektuaren barruan diruz lagundutako ikuskizuna***

Interreg POCTEFA
UNIÓN EUROPEA UNION EUROPÉENNE
De mar a mar
Eskualde Garapeneko Europako Funtsarekin (FEDER) finantzatutako proiektua

**www.labassecour.com**

| | | |
|---|---|---|
| **EGUENA 5** | **20:15** | AREATZAKO KAIA |
| **BARIKUA6** | | PLAZA BARRIA |





## AMAIA ELIZARAN (Euskal Herria- EAE)

**"Block" – Dantza (18 min).** ). Adin guztietako ikusleentzat.

Bi emakumek osatzen dute *Block*. Bi emakume hauek gorputzaren bitartez dute erlazioa, kontrako indarrak eta blokeoak sortuz. Guzti hori, erresistentzia horietan oinarritutako hizkuntza propioa eraikitzeko helburuarekin. Blokeatu, oztopatu, eragotzi, ibilgetu, bakartu… Pertsona batek bere bizitzarekin aurrera egitea oztopatzen du blokeo batek eta horrek hainbat eratan eragina izan dezake. Gizakiok, batzuetan, nahi duguna adierazteko zailtasunak izaten ditugu, baita gauzei zentzua aurkitzeko zailtasunak ere.

***Proiektu irabazlea KARRIKAN Plataforma bigarren laguntza deialdiaren barruan.*** Karrikan

**www.amaiaelizaran.com**

| | | |
|---|---|---|
| **EGUENA 5** | **19:00 / 22:15** | ARRIAGA ANTZOKIAREN ALBOAN |

## AMER I ÀFRICA (Katalunia)

**"Envà" – Zirkua (45 min).** ). Adin guztietako ikusleentzat.

Lastozko 250 kg eta giza haragizko 125 kg artean, bi pertsonek hitz egiten digute giza harremanen berezitasunei buruz. Horretarako, mugimenduez, orekez, umoreaz eta espazioaren konposizioaz baliatzen dira. Hori guzti hori, mugimenduaz eta eskuz eskuko teknikaz baliatuta egiten dute, figurak testuinguruan sartuta, akrobaziari historia, umorea eta intentsitatea, hunkidura, berrikuntza eta edertasuna batuz. Leioako Umore Azokako ikuskizunik onenaren saria.

***"DE MAR A MAR – ZIRKUKO PIRINIOAK" mugaz haraindiko proiektuaren barruan diruz lagundutako ikuskizuna***

Interreg POCTEFA De mar a mar

UNIÓN EUROPEA UNION EUROPÉENNE

Eskualde Garapeneko Europako Funtsarekin (FEDER) finantzatutako proiektua

**www.amerafricacirc.com**

| | | |
|---|---|---|
| **ASTELEHENA 2** | **18:15** | CASILDA ITURRIZAR PARKEA |
| **MARTITZENA 3** | | |





## BARADA STREET (Britainia Handia)

**"Barada Street" – Zirkua / Clowna / Musika (45 min).** 9 urtetik gorakoentzat.

Ingeles patxadatxu lerdo batek eta Kirguistaneko atleta batek Barada Street izeneko zoragarrizko mundua sortzen dute. Komeria hunkigarria, akrobaziez betea, zuzeneko musika eta lotsabako ergelkeria. Nazioarteko bikote saridun honek ikusleak maitemintzen daki giro intimo eta atsegina sortzearen bidez.

**www.baradastreet.com**

| | | |
|---|---|---|
| **BARIKUA 6** | **18:45 / 22:00** | ARRIAGA ANTZOKIAREN ALBOAN |

## CIRC PÀNIC (Katalunia)

**"MiraT"– Zirkua (45 min).** ). Adin guztietako ikusleentzat.

Balantza handia pistaren erdian jarrita. Begiraden jokoa hasten da. Begiratu, norbere buruari begiratu, bakartasunari aurre egin, konplazentzia barik. Barre egin, norbere buruari barre egin. Oreka bilatu, kulunka, biraka, dantzan. Erabaki garrantzitsu honek bizitza aldarazi diezazuke. Txinako pertigako ikuskizuna. Gizakiaren izaera ahulari eta bizitzaren gezurrezko orekari buruzko gogoeta.

**www.circ-panic.com**

| | | |
|---|---|---|
| **EGUAZTENA 4** | **17:45 / 20:30** | CASILDA ITURRIZAR PARKEA |





## CRÉATURE CIE. (Frantzia)

**"Les Irréels" – Performance (4 ordu).** Adin guztietako ikusleentzat.

Antzerki-talde hau betidanik ibili da antzerkiaren eta arte plastikoen mugan. Orain, bere ikuspegi artistikoa antzerkiaren eta begiradaren bilaketarekin izenpetu du arteari buruz daukan ikusmoldea. Les Irréels izenekoek gizadiaren herri paraleloa osatzen dute. Ez dakigu milurteko zibilizazioa, tribu futurista ala espezie ezezaguna ote diren. Hiru etxolaren bitartez, unibertso plastiko gogor eta apartekoen barruan Les Irréels izenekoen gorabeherak ikusiko ditugu. Hitzik gabeko honako performance hau hiriaren eta gu guztion egunerokotasunaren bihotzean dago. Hala, ametsa dirudien etenaldia proposatzen digu, geure baitarekin bategiteko.



**www.ciecretaure.fr**

| | | |
|---|---|---|
| **ASTELEHENA 2** | **17:30** | CASILDA ITURRIZAR PARKEA |
| **MARTITZENA 3** | | |
| **EGUAZTENA 4** | | |





## ECCENTRICI DADARÓ COMPAGNIA TEATRALE (Italia)

**"Operativi"– Antzerkia / Zirkua (50 min).** Adin guztietako ikusleentzat.

Hona hemen alemaniar bat, estatubatuar bat eta italiar bat. Txantxa baten hasiera ematen du baina benetako istorioa osatzen du. Denboratik kanpoko istorioa da, hiru pailazo-soldadurekin, historiaren guda guztien beteranoak. Haien jeep militarrean helduko dira gerra guztien omenezko monumentua eraikitzeko eta historian izandako hainbeste lerdokeria gogora ekartzeko.

**www.glieccentricidadaro.com**

| | | |
|---|---|---|
| **ZAPATUA 7** | **18:15 / 20:30** | PLAZA BARRIA |

## ERTZA (Euskal Herria: EAE)

**"Meeting point" – Dantza (15 min).** Adin guztietako ikusleentzat.

Ohar gaitezen batzuetan bi pertsonen bizitza labirintoetako bideak gurutzatu egiten direla, eta, une jakin horretatik aurrera, pertsona horiek ezin dutela lehengoak izaten jarraitu. Aurki dezagun dantzarekiko grina nagusitzen den tokia. Han, hainbat hizkuntza, break dancea eta hip-hopa, besteak beste, uztartuz gero zerbait berria sortzen da, dantza garaikidetik datorren hirugarren baten begiradapean. Zerbait berria eta zehaztugabea baina, aldi berean, biak definitzen dituena (edo, hobeto esanda, hirurak).

**www.ertza.com**

| | | |
|---|---|---|
| **ZAPATUA 7** | **18:00 / 20:15** | ARRIAGA ANTZOKIAREN ALBOAN |





## GANSO & CÍA. (Euskal Herria: EAE)

**"Babo Royal" – Clowna (50 min).** Adin guztietako ikusleentzat.

50m2-ko inperioa, burutik jota dagoen erregea eta trobalari bitxia. Lurralde txiki honetan xelebrekeria da jaun eta jabe. Tronpetak entzun eta banderak astintzen dira. Ospakizuna has dadila! Fisikoki edo sinbolikoki, guztiok gonbidatuta gaude Errege-otordu, ofrenda, dantzaldi edota desfilean parte hartzera. Erregeak nahi duen oro fantasia bihurtu beharko da. *Babo Royal* jolasa da, non hierarkiak trukatzen diren, non egunerokotasunak harritzen duen, non normaltasuna eta zentzutasuna debekatuta dauden.

**www.ganso.info**

| | | |
|---|---|---|
| **EGUENA 5** | **18:00 / 21:15** | AREATZA |

## GINGER BRASS EXPERIMENT (Frantzia)

**"Le Ginger Brass Experiment" – Musika (45 min).** Adin guztietako ikusleentzat.

*Ginger Brass Experiment* taldea hiru musikarik elkarrekin jotzeko izan duten asmotik dator. Metalezko haize-tresna jotzaile bi eta operako abeslari bat dira. Baina, zertan dabiltza elkarrekin? Zer jo? Nola? Soinu bateratu eta berria osatzeko erronka dutenez gero, eremu ezezagunerako saltoa da, izan ere, ez dago erreferente ezagunik. GBE entzutekoa eta ikustekoa da, izan ere, agertokiaren gaineko hirukote dibertigarri eta hunkigarria osatzen dute.

**www.gingerbrass.wordpress.com**

| | | |
|---|---|---|
| **BARIKUA 6** | **18:00 / 21:15** | EUSKAL MUSEOA |

* Gonbidapena behar duen ikuskizuna. Areatzan dagoen Jaialdiko Informazio Bulegoan eskuratu daitezke (gehienez 2 pertsona bakoitzeko) uztailaren 2tik 6ra bitartean (11:30-14:00 / 16:30-20:30)



## HIKA TEATROA ETA OINKARI DANTZA TALDEA

(Euskal Herria: EAE)

**"Sagartu" – Dantza / Antzerkia de calle (50 min).**

Adin guztietako ikusleentzat.

Umorez, alaitasunez eta bizi-bizi, sagarrak gure herrian ez ezik, paradisuko garaietatik hona izan dituen esanahi guztiak plazaratuko dituen kaleko ikuskizun multidisziplinarra, zuzeneko musika, antzerkia eta dantzarekin.

**www.hikateatroa.eus**

| BARIKUA 6 | 23:30 | AREATZAKO KAIA |
| --- | --- | --- |





## IMPERIAL KIRIKISTAN (Frantzia)

**"La Parade Impériale du Kirikistan" – Musika (45 min).** Adin guztietako ikusleentzat.

Metropolietako trobadoreak, ahaztutako lurraldeen komedianteak dira. Imperial Kikiristan taldeak ikuskizun eklektikoa eskaintzen dute Kirikistaneko Inperioaren Gorteko ospakizunen tradizioari jarraiki. Bere folklorea, beti berriztatzen dabilen bidaia-egunkaria da, ibilbide sinesgaitzetatik eratorrita: Erdialdetik Ipar Afrikara, Oraneko kabareteen bidez, Tel Aviveko ile-apaindegi bat eta Ave kazaja merkatuak; Bollywoodetik Broadwayra, Zetaren Bidetik 66 Bideraino, 1.000 emanaldi baino gehiago eskaini dituzte 30 herrialdetan baino gehiagotan.

**www.assahira.com/imperial-kirikistan**

| | | |
|---|---|---|
| **ASTELEHENA 2** | **17:00 / 19:30** | CASILDA ITURRIZAR PARKEA |
| **MARTITZENA 3** | **17:00 / 19:45** | |
| **EGUAZTENA 4** | | |

## KATAKRAK (Katalunia)

**"Els Recicloperats" – Jolasteko instalakuntza (3 ordu).** Adin guztietako ikusleentzat.

Formatu ertaineko 18 joko autonomoren bilduma ibiltaria. Horietan, parte-hartzaileek helburu txikiak lortu behar dituzte, horretarako oinarrizko trebezia psikomotorrak eta argitasun nahiz estrategia apur bat erabilita. *Els Recicloperats* instalakuntza ireki eta askea da. Antzerki-taldeak, jokoen dinamika azalduko die, bat-batean, protagonista handi bilakatuko diren ikusleei.

**www.katakrak.com**

| | | |
|---|---|---|
| **ASTELEHENA 2** | **18:00** | CASILDA ITURRIZAR PARKEA |
| **MARTITZENA 3** | | |
| **EGUAZTENA 4** | | |





## LE CHAPITO DE NOUVELLE-CALÉDONIE (Frantzia)

**"Caillasse" – Kaleko antzerkia (50 min).** 6 urtetik gorakoentzat.

"Expedition Paddock" obra koreografikoaren egokitzapena. *Caillasse* hegaldi dibertigarri eta zoroa da, ikusleei gorrotoaren hormaren gainetik begiratzera eta unibertsoak bultzatutako espetxezainei aurre egitera gonbidatzen duena. Preso baten epopeia libertario honetan, keinuzko lumaren bidez, Askatasunaren instintuzko abiaduran bizi diren guztiei buruz hitz egingo digute.

**www.lechapito.wixsite.com/lechapito/caillasse**

| | | |
|---|---|---|
| **BARIKUA 6** | **19:00** | EPALZA KALEA |
| **ZAPATUA 7** | **19:15** | AREATZA |
| | **21:30** | |



## LOS GALINDOS (Katalunia)

**"UduL" – Zirkua (60 min).** 7 urtetik gorakoentzat.

Los Galindos taldeak gorputzaren gaitasunak ikertu eta berriro aurkitzen ditu, norbanakoak bere baitari emozioen bidez aurre eginda. Paisaje horietan, topatzeak eta aldentzeak uztartuta agertzen dira, anbiguotasunak zehaztutako espaziotik gertu. Barrualdeko zirku bizi eta sinple honetan, pertsonaiak egoerak gainditzen ahalegintzen dira, zailtasunez, naturaltasunez existitzen jarraitzeko, behar izanez gero, barre-algararaino.

***"DE MAR A MAR – ZIRKUKO PIRINIOAK" mugaz haraindiko proiektuaren barruan diruz lagundutako ikuskizuna***

Interreg POCTEFA
De mar a mar
Eskualde Garapeneko Europako Funtsarekin (FEDER) finantzatutako proiektua

**www.losgalindos.net**

| | | |
|---|---|---|
| **MARTITZENA 3** | **18:00 / 20:30** | CASILDA ITURRIZAR PARKEA |
| **EGUAZTENA 4** | | |

* Sarrera 3 € (Tête de Mules ikuskizunekoa ere erosten bada, 5 € biak). Jaialdiko Informazio Bulegoan eskuratu daitezke uztailaren 2tik 4ra (11:30-14:00 / 16:30-20:30) edo Casilda Iturrizar Parkean (17:00-21:00). Batutako dirua LA CUADRI DEL HOSPI elkarteari dohaintzan emango zaio.









## MADUIXA CIA. (Valentziako Erkidegoa)

**"Mulier" – Dantza (40 min).** Adin guztietako ikusleentzat.

*Mulier* ikuskizunak sari asko jaso ditu: kale arteen estreinaldirik onenari Moritz Fira Tàrrega saria 2016an, 2017ko Leioako Umore Azokako ikuskizun onenaren saria eta musika-konposizio onenaren eta kaleko ikuskizun onenaren 2017ko Max sariak. Antzezlan hau trikimakoen gaineko dantza, oreka, mugimendua, poesia, indarra eta emozioa da. Omenaldi bat zapalkuntzako mende luzeetan zehar beren ni basatia bizirik iraunarazteko borrokatu diren eta borrokatzen diren emakumeentzat, eta aldarrikatzen dutenak dantzatzeko eta gure gizarteko kale-plazetan euren eskubidea libre korrika egiteko.

**www.maduixacreacions.com**

| | | |
|---|---|---|
| EGUAZTENA 4 | 22:30 | ARRIAGA PLAZA |

## MIGUEL LLANES (Euskal Herria: EAE)

**Artes plásticas (4 ordu).** Adin guztietako ikusleentzat.

Bere lana Sarriako (Araba) Atal baserriko tailerrean hasi zuen duela hamarkada bi, eta bere esperimentazioaren araua beti izan da birziklatutako materialak soilik erabiltzea, baztertutako gauzei bigarren bizitza emanez. Bere sormen lanetan elkarrekin bizi dira eskultura, pintura eta collagearen teknika desberdinak, asetasun kromatikorako gustua eta testura eta materialen aukeraketa pertsonalarekin lortutako umorea partekatuz. Miguel Llanesen lana folk art, primitivo modernoak eta arte landugabearen ildoan dago. Miguel Llanesengan ez dago moda, joera edo eskolaren atxikipenik edo obedientziarik. Bere bilaketa erabat askea eta pertsonala da. Bere serieak -"Haurtzaro", "Tribu", "Tierra", "We, outsiders"….- autozentsurarik gabe erakusten diren pertsonaien babesleku dira, lotsarik edo araurik gabe.

**www.miguelllanes.com**

| | | |
|---|---|---|
| ASTELEHENA 2 | 17:00 | CASILDA ITURRIZAR PARKEA |
| MARTITZENA 3 | | |
| EGUAZTENA 4 | | |





## MOVEO CIA. (Katalunia)

**"Conseqüències" – Dantza (25 min).** 6 urtetik gorakoentzat.

Mugimenduzko ikuskizun honek begiralearen eta begiratuaren arteko aldea hausten du. Lan honetan hiru norakotan arakatzen dute. Lehenik eta behin, errealitatea eta fikzioa, egia eta gezurra, aktorea eta ikuslea alderatzea. Bigarrenik, talde sozialaren kideen arteko harremanak: mendekotasuna, laguntza, arbuioa, erakarpena... Eta, hirugarrenik, ikusgarrienaren bitartez ikusezina antzeztea.

**www.ciamoveo.cat**

| | | |
|---|---|---|
| **ASTELEHENA 2** | **12:00** | EUSKAL MUSEOA |
| | **17:45 / 20:30** | CASILDA ITURRIZAR PARKEA |

* Euskal Museoko 12:00etako emanaldian sarrera mugatua eta leku guztiak bete artekoa.

## MYSTÉRIEUSES COIFFURES (Euskal Herria - Iparralde)

**"Xori-gizonaren elezaharra" – Dantza / Instalazioa (45 min).** 7 urtetik gorakoentzat.

Mendiaren gaineko baso legendario batean txori-herri bat zegoen. Ile luzedun gazte batek soilik zuen bertara sartzeko aukera. Guztiak bizi ziren harmonian, sasoi bakoitzaren erritmoan. Behin, naturak gizakiei aurre egin zien. Egun horretan gaztea erditu zen. Une gorabeheratsu horietan, semea harizpean uztea erabaki zuen eta buruz nahastuta geratu zen. Orduan, herri-txoriak umea hazi zuen. Hogei urte betetzen duen egunaren egunsentian, umea kabitik jaitsi eta txoriak istorio guztia aipatu zien. Orduz geroztik, bazuen bete beharreko helburu bat bizitzan.

***Proiektu irabazlea KARRIKAN Plataforma bigarren laguntza deialdiaren barruan.*** Karrikan

**www.mysterieusescoiffures.com**

| | | |
|---|---|---|
| **MARTITZENA 3** | **19:00** | CASILDA ITURRIZAR PARKEA |
| **EGUAZTENA 4** | | |



## **PUDDING THÉÂTRE** (Frantzia)

**“Géopolis” – Kale-antzerkia (77 min).** 10 urtetik gorakoentzat.

Zergatik laga beharko genuke gure herrialdea? Nola babestu ditzakegu gainerakoak eta geure burua hura lagatzen dugunean? Nola erabaki noiz ez dagoen beste aukerarik? Zazpi helmuga, irudizko herrialde bat, hizkuntza asmatu bat, gerra bat. Geopolitikaren ondorioz euren bizitzak errotik aldatzen diren pertsonen zazpi istorio. Formatu handiko ikuskizuna, eta, aldi berean, mikroa, intimoa, gauekoa, estatikoa baina mugitzen ari diren ikusleentzakoa.

**www.pudddingtheatre.fr**

| | | |
|---|---|---|
| **ZAPATUA 7** | **22:30** | ARRIAGA PLAZA |





## ROSIE VOLT (Frantzia)

**"Yadéwatt" – Clowna (60 min).** 10 urtetik gorakoentzat.

Rosie Volten modura, bidaia ederra egin duena zoriontsu dabil... Glotisaren akrobata hau kantu-ikuskizun basati eta zentzubakoarekin helduko zaigu. Hari jakin batik heldu barik hitz egingo digu, beste altuera batera eramango gaituen ahozko looping baten bitartez. Alderdi askotariko diva baten gisa, zoraldiz jositako errezitaldia eskaintzen saiatuko da, zenbait estilo jorratuta: lirikoa-folka-rocka... Aintzaren bila abeslari sentitzen da, baina erridikuluak biluzik uzten du. Ikusleak lugorrian utzitako bere lorategi sekretuan murgilduko dira, mundu ero eta frenetikoan, gutako bakoitza lorategi publiko batean gaudela igarri arte.

**www.rosievolt.com**

| | | |
|---|---|---|
| **MARTITZENA 3** | **22:30** | ARRIAGA PLAZA |

## SASEO CIE. (Frantzia)

**"Cabaret de poche"– Zirkua (60 min).** 3 urtetik gorakoentzat.

Saseo antzerki-taldea lau astapotroz osatuta dago, urrezko zenbait kubo ditu, purpurina poltsikoetan eta soka-zati bat karpa bat osatu arte. Zirkuko balentriak pailazokada pila bat egiteko aitzakiak dira. Kabaret honen programan zenbait numero daude: oihalekin, akrobaziarekin, fruta eta barazki-jaurtiketarekin eta lehoien heztearekin. Ea bada, agian. Izan ere, numero guztiak aisazko moduan aukeratuta daude… Beraz, ezin da inoiz jakin zer eta nori egokituko zaion numero bakoitza: bonbon-kutxa baten modukoa da, edo arriskutsuagoa… baina berdin atsegin dugu.

**www.saseo.org**

| | | |
|---|---|---|
| **ASTELEHENA 2** | **22:30** | ARRIAGA PLAZA |



## **TÊTES DE MULES** (Euskal Herria: Iparralde)

**"L'Entresort" – Antzerkia / Zirkua / Magia (50 min).** 10 urtetik gorakoentzat.

Behatxulo batetik, familia bitxi bat ikusiko duzu: gizabanako bitxiak, ohiz kanpoko izakiak, munstro izugarriak. Junior, 30 urteko eskeleto-gizona, Alma, bere trikimailuekin manipulatu eta kontrolatu egiten duen ama, berarekin betiko gera dadin. Haren bizitza senarra zenaren begirada zorrotzaren pean igarotzen da. Munstroak al dira? Ala pertsona normalak? Nor gara gu hori epaitzeko? Ba al gara uste dugun bezain normalak benetan? Tragikomedia magiko, bitxi eta barregarria, ametsen eta errealitatearen nahasketa, "side show"aren mundu misteriotsura eroango gaituena.

**www.compagnietetesdemules.wordpress.com**

| | | |
|---|---|---|
| **ASTELEHENA 2** | **21:15** | CASILDA ITURRIZAR PARKEA |
| **MARTITZENA 3** | | |
| **EGUAZTENA 4** | | |
| **EGUENA 5** | | |
| **BARIKUA 6** | | |
| **ZAPATUA 7** | | |

* Sarrera 3 € (Los Galindos ikuskizunekoa ere erosten bada, 5 € biak). Jaialdiko Informazio Bulegoan eskuratu daitezke uztailaren 2tik 7ra (11:30-14:00 / 16:30-20:30) edo Casilda Iturrizar Parkean (17:00-21:00). Batutako dirua LA CUADRI DEL HOSPI elkarteari dohaintzan emango zaio.





## THE PRIMITIVES (Belgika)

**"Three of a kind" - Kale-antzerkia (35 min).** 8 urtetik gorakoentzat.

Adin ertaineko gizon bi agertzen dira. Mozorrotuta daude. Badute zerbait eskaintzeko baina ez omen dute gogoratzen... zer ... non ... ezta nork nori ere. Galduta eta norako jakin barik, estropoz egiten dute, dantzan jartzen dira eta batera korrika egiten dute edo jausten dira, bata besteari helduta, ahaztutako helburua nola edo hala betetzeko ahaleginetan. *Three of a Kind* antzezlana adimena pizteko eta mugimendu komiko-absurdoaren piezan murgiltzeko gonbidapena da, izan ere, horretan dena da jolasa, hunkidura eta bat-batekotasuna.

**www.primitives.be**

| | | |
|---|---|---|
| **EGUENA 5** | **19:30 / 22:45** | PLAZA BARRIA |

## ZIRKUS MORSA (Frantzia)

**"La fin demain" – Zirkua (40 min).** 5 urtetik gorakoentzat.

Hondoratzeko arriskua duen mundu honetan, Zirkus Morsak gure planeta honetako bizitzaren metafora osatu du. Egurrezko taula bat eta pergamino bat eskuan, pertsonai biak, irudimenaren hondartzan galduta daude, elkar ezagutu eta elkarrenganako konfiantza irabazten dute... Joko adiskidetsu hau kolokan dauden oreketan oinarritzen da, haien ingurunearen aukerak aztertuz - baliorik gabeko aurkikuntzak bat-batean aintzat hartzen dira: taula, biribilkia, egur-zatiak, soka bat... Konplizitatea eta zintzotasuna ikuskizun honen osagaiak dira.

**www.zirkusmorsa.de**

| | | |
|---|---|---|
| **EGUENA 5** | **23:30** | ARRIAGA PLAZA |
| **BARIKUA 6** | **19:30 / 22:45** | AREATZA |



## ZO-ZONGÓ!! (Euskal Herria: EAE)

**"Psycho-Clown"– Musika / Kale-antzerkia (75 min).** 10 urtetik gorakoentzat.

Musika eta antzerkiko ikuskizun honetan 8 pailazo zoro, Jokerren agindutara, gure hirira helduko dira guztiari buelta emateko prest. Perkusioan oinarrituta dago, zenbait estilo eta erritmo joz. Ondorio jakin bako show honetan ezjakintasuneko dosi handiak daude, urduritasunarekin batera. Hori guzti hori, piroteknia eta danborren argi-efektuez lagunduta agertuko zaigu.

**www.zozongo.com**

| | | |
|---|---|---|
| **ZAPATUA 7** | **24:00** | AREATZAKO KAIA |



